



KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Martxoa / Marzo

Astelehena 8 Lunes / 17:00 / 19:30

Auditorio **Kursaal** Auditorioa

Vox Luminis & Freiburger BarockConsort

Lionel Meunier, zuzendaria

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Agostino Steffani (1654-1728)

STABAT MATER (28')

Stabat Mater dolorosa

Cuius animam gementem

Quis est homo qui non fleret

Pro peccatis suae gentis

Vidit suum dulcem natum

Eja Mater fons amoris

Fac me vere tecum flere

Virgo virginum praeclara

Fac ut portem Christi mortem

Fac me plagis vulnerari

Inflamatus et accensus

Quando corpus morietur

Heinrich Ignaz Franz von Biber (1644-1704)

REQUIEM EN FA MENOR (30')

Introitus

Kyrie

Dies irae

Offertorium

Sanctus

Agnus Dei - Communio

Enpresa Elkartua / Empresa Asociada:



Babesleak /
Patrocinadores:



Laguntzaileak /
Colaboradores:



Enpresa Elkartuak /
Empresas Asociadas:



Komunikabide Elkartuak /
Medios Asociados:



Radio San Sebastián



Programari buruzko oharrak

Vox Luminis ahots-talde ezagunak (antzinako musika interpretatzen duen egungo talde onentsuenak) Freiburger BarockConsort-ekin batera eskainiko duen programa honen bi jomugak Steffani eta Biber izango dira, Errenazimentuaren eta Barrokoaren arteko zubilana egiten duten bi konpositore handi. Ahots-taldea, Lionel Meunierrek 2004an sortua, XVII. mendeko eta XVIII. mendearen hasierako erreperitorio ingeles, italiar eta alemaniarrean espezializatu da, eta, betiko maisulan ezagunak ez ezik, musikaren historiako harribitxi ezezagunetako batzuk ere interpretatzen ditu. Taldearen muina diren ahots bakarlariak edo orkestra oso bat izaten dute lagungarri, erreperitorioko zer pieza ari diren interpretatzen. Taldea artista egoiliarra da Brujasko Concertgebouw-n, eta lankidetzaz estrategiko bat hasi du berriki Freiburger BarockConsort orkestrarekin. Alemaniako ganbera-talde handietako bat den talde instrumental horren helburua kontzertu-programetan gutxitan agertzen diren lanak ezagutarazteko ezohiko programak aurkeztea izan da betidanik, edo ustez oso ezagunak diren lanak ikuspegi berri batekin aurkeztea.

Elkarlan horren emaitza gisa, erreperitorio barroko bi harribitxi entzungo ditugu gaur arratsaldean: Agostino Steffani opera-konpositore oparoak erlijio-musika, ganbera-piezak, korurako eta orkestrarako lanak ere konposatu zituen. Lan handia egin zuen ere opera Europako iparraldean zabaltzeko eta ezagutarazteko, veneziar estilo tradizionala eta frantses estiloko elementuak uztartuz. "Stabat Mater" lana, konpositore italiarraren maisulantzaz hartua, haren grina erlijiosoaren erakusgarri garbia da. Hil baino pixka bat lehenago idatzi zuen, 1728an, eta haren sorkuntza-lanik konplexu eta hunkigarrienetako bat da, dudarik gabe.

Biberren "Requiema fa minorrean", bestalde, barroko garaiko konposizio ederrenetako bat da, askoren ustez. Bost ahotsetarako idatzia dago, bost zatitan banatutako harizko oinarri baten gainean eraikia, eta biolin bakarlari baten hots hunkigarria du gidari nagusi obra osoan. Izan ere, Biber bera biolin-jotzaile birtuoso izan zen, obra asko eskaini zizkion tresnari, eta aise imajina dezakegu bakarlari-lanak zuzendari-lanarekin uztartzen. Obra honek hainbat atal ditu, oso desberdinak: ahots-soloak, tertzetak, kuartetok, fugak eta abar. Konpositoreak, maisutasun handiz, adierazkortasun berezi batez hornitu zuen atal bakoitza, hunkidura eta heriotzaren ikuspegi argitsua elkarrekin konbinatuz.

Notas al programa

Steffani y Biber, dos compositores puente entre el Renacimiento y el Barroco, serán el objetivo de este programa que Vox Luminis, uno de los mejores grupos vocales de música antigua de la actualidad, ofrecerá acompañado por Freiburger BarockConsort. El conjunto vocal, fundado por Lionel Meunier en 2004, se especializa en repertorio inglés, italiano y alemán de los siglos XVII y principios del XVIII, dando vida no solo a obras maestras conocidas, sino también a otras obras que se podrían definir como tesoros raramente compartidos. Su núcleo de solistas vocales se complementa, según el repertorio, con un extenso continuo, instrumentos solistas o una orquesta completa. El ensemble es artista residente en el Concertgebouw de Brujas, y recientemente ha iniciado una colaboración estratégica con la Freiburger BarockConsort (Orquesta Barroca de Friburgo). El objetivo de este grupo instrumental, una de las grandes formaciones de cámara alemanas, ha sido siempre presentar programas poco habituales que redescubran obras que raramente aparecen en programas de concierto, o presentar obras supuestamente muy conocidas con un nuevo enfoque.

Como fruto de esta colaboración escuchamos esta tarde dos joyas del repertorio barroco: prolífico compositor de óperas, Agostino Steffani compuso también obras sacras, piezas de cámara, obras corales y orquestales. Hizo mucho para popularizar la ópera en el norte de Europa, combinando un estilo tradicional veneciano con elementos de estilo francés. El "Stabat Mater", reconocido como su obra maestra, muestra el fervor religioso del compositor italiano. La escribió justo antes de morir en el año 1728, y está considerada una de sus creaciones más complejas y conmovedoras.

El "Requiem en fa menor" de Biber, por su parte, está considerado como una de las composiciones más bellas del periodo barroco. Escrito para 5 voces sobre una base de cuerda también en 5 partes, domina por encima de todo un violín solista. No hay que olvidar que Biber fue un violinista virtuoso, instrumento al que dedicó infinidad de obras, y no cuesta imaginárselo dirigiendo los músicos desde su posición de violín solista. La obra se divide en secciones muy diversas, desde solos vocales hasta tercetos, cuartetos o pasajes fugados. El compositor consigue darle una atmósfera expresiva concreta a cada sección del texto, combinando la emoción con una visión luminosa de la muerte.

Vox Luminis

2004an sortu zenetik, Vox Luminis ahots-musikako taldeak, Lionel Meunier baxuak zuzenduak, goraipamen handiak izan ditu nazioartean, bai ganbera-formatuan bai ekoizpen handietan eskaintzen duen soinu paregabeagatik. 2012an, "Urteko diskoa" saria jaso zuen Gramophone sari ospetsuetan. Ordutik, taldeak 16 grabazio egin ditu Ricercar, Alpha Classics, Ramée eta Musique en Wallonie diskoetxeekin, eta nazioarteko hainbat sari irabazi ditu: 'Klara Ensemble of the Year 2018', BBC Music Magazine 'Choral Award Winner 2018', 3 Diapasons d'O eta zenbait Preis der Deutschen Schallplattenkritik. Iaz, taldeak beste Gramophone Music Award bat jaso zuen, 'Musika Korala' kategorian, Buxtehuder Abendmusiken (2019) grabazioagatik. Vox Luminisek 70 kontzertu inguru eskaintzen ditu urtero, mundu osoko kontzertu-areto eta musika-jaialdi nagusietan: Bruselako Bozar, Anberesko deSingel, Madrilgo Auditorio Nacional,artzelona Auditori, Londresko Wigmore Hall, Berlingo Philharmonie, New Yorkeko Lincoln Center, etab. Vox Luminis taldea artista egoiliarra da Brujasko Concertgebouw kultur gunean. Duela gutxi, lankidetzaz estrategikoa hasi du Friburgoko Orkestra Barrokoarekin.

Desde su fundación en 2004, el conjunto vocal Vox Luminis, dirigido por el bajo Lionel Meunier, ha sido elogiado internacionalmente por su sonido único, tanto en formato de cámara como en grandes producciones. En 2012 recibe el galardón "Disco del año" en los prestigiosos premios Gramophone. Desde entonces, el grupo ha realizado 16 grabaciones con Ricercar, Alpha Classics, Ramée y Musique en Wallonie, y ha ganado numerosos premios internacionales como 'Klara Ensemble of the Year 2018', BBC Music Magazine 'Choral Award Winner 2018', 3 Diapasons d'O y varios Preis der Deutschen Schallplattenkritik. El año pasado, el conjunto recibió otro Gramophone Music Award en la categoría 'Coral' por su grabación de Buxtehude: Abendmusiken (2019). Cada año Vox Luminis ofrece alrededor de 70 conciertos en las principales salas de conciertos y festivales de todo el mundo, incluidos Bozar de Bruselas, deSingel Antwerp, Auditorio Nacional Madrid, L'Auditori Barcelona, Wigmore Hall London, Philharmonie Berlin, Lincoln Center New York, etc. Vox Luminis es artista residente en Concertgebouw Brugge. Recientemente, han iniciado una colaboración estratégica con la Orquesta Barroca de Friburgo.

Freiburger BarockConsort

Friburgoko Orkestra Barrokoa (FBC) orkestra-taldea XVII. eta XVIII. mendeetako gutxien interpretatutako musikan espezializatua da. Taldea Freiburg Baroque Orkestrako kideez osatua dago gehienbat, eta musika-errepertorio zabala eskaintzen du: musika ingelesa ("A Masque of Beauty"), Alemaniako iparraldeko musika ("Abend-Musick", "Bach eta lagunak"), Habsburgotarren garaiko konposizioak ("Habsburger Serenade"), italiar barroko goiztiarreko musika, eta musika garaikidea ("Zeitsprünge"). Batez ere Biber, Heinrich Schmelzer, Georg Muffat eta Antonio Bertaliren lan birdusoak dira taldearen errepertorioren muina. Konpositore horien lanez gain, FBCk arrakastaz grabatu du G.P. Telemannen ganbera-musika, eta ahanzturatik ateratzea lortu du horrela. Ahots-musikaren arloan aurrera eraman dituen proiektuen artean, aipagarriak dira, besteak beste, "In bel giardino" izenburuko CDa, Giovanni Valentiniaren madrigalen grabazioa, Orlando di Lasso Ensemblerekin batera interpretatutako "Pasioa San Juanen arabera" lana, eta, Dorothee Mieldsekin lankidetzan, Fux, Scarlatti eta Pergolesiren kantatekin osatutako programa.

Freiburger BarockConsort (FBC) se ha especializado en la música menos interpretada de los siglos XVII y XVIII. El repertorio de este ensemble, compuesto principalmente por miembros de la Freiburg Baroque Orchestra, incluye música inglesa („A Masque of Beauty"), música del norte de Alemania („Abend-Musick", „Bach y amigos"), composiciones del período de los Habsburgo („Habsburger Serenade"), música barroca temprana italiana y combinaciones de barroco y música contemporánea ("Zeitsprünge"). Sobre todo, las composiciones virtuosas de Biber, Heinrich Schmelzer, Georg Muffat y Antonio Bertali forman parte del repertorio central del grupo. Además de obras de estos compositores, el FBC también ha grabado con éxito la música de cámara de G.P. Telemann, rescatándola del olvido. Entre los proyectos desarrollados en el ámbito vocal cabe destacar un CD con el título "In bel giardino", la grabación de madrigales de Giovanni Valentini, la interpretación de "La Pasión según San Juan" junto al Orlando di Lasso Ensemble, o la colaboración con Dorothee Miels en un programa con las cantatas de Orfeo de Fux, Scarlatti y Pergolesi.

Lionel Meunier

Frantses musika-zuzendari eta baxua da, Vox Luminis Belgikako ahots-musikako talde ospetsuaren sortzailea eta zuzendari artistikoa. Interpretazio historizistaren eta musika koralaren alorretan, zuzendari artistikorik dinamiko eta goretsienetako bat da gaur egun. Bere interpretazio-ikuspegi zorrotz eta kementsuagatik da gorai patua, eta mundu osoko abesbatza, talde eta orkestretatik deitzen dute, gero eta gehiagotan, zuzendari gonbidatu eta zuzendari artistiko gisa jarduteko. Lionel Meunierren nazioarteko karrera 2012an hasi zen, Vox Luminisek Gramophone Recording of Year saria irabazi zuelarik, Heinrich Schützen "Musicalische Exequien" lanaren grabazioagatik. Haren gidaritzapean, Vox Luminis taldeak kontzertu bira luzeak egin ditu Europan, Ipar Amerikan eta Asian zehar; egonaldi artistikoak egin ditu, zenbait denboraldiz, Aldeburgh Festival eta Utrecht Early Music Festival jaialdietan, eta Londresko Wigmore Hall eta Brujasko Concertgebouw aretoetan. Hamabi album baino gehiago grabatu ditu Vox Luminisekin, kritikak oso ondo hartuak denak. Buxtehuderen lanarekin berriki egindako grabazioak Gramophone saria jaso du bigarrenez: 2019ko koru-grabazio onenaren saria, hain zuzen. Frantzia jaioa, abeslari eta flautista gisa trebatzen hasi zen, eta, baxu gisa, izen handiko taldeetan eman zion hasiera bere abeslari-ibilbideari: Collegium Vocale Ghent, Amsterdam Baroque Choir eta Capella Pratensis.

Fundador y director artístico del galardonado conjunto vocal belga Vox Luminis, el director y bajo francés Lionel Meunier está considerado como uno de los directores artísticos más dinámicos y aclamados en los campos de la interpretación historicista y de la música coral. Elogiado por su enfoque interpretativo detallista y enérgico, es cada vez más solicitado como director invitado y director artístico de coros, formaciones y orquestas de todo el mundo. El comienzo de la carrera internacional de Lionel Meunier tuvo lugar en 2012 cuando Vox Luminis ganó el premio Gramophone Recording of Year por su grabación del "Musicalische Exequien" de Heinrich Schütz. Bajo su liderazgo, Vox Luminis se ha embarcado desde entonces en extensas giras de conciertos por Europa, Norteamérica y Asia; ha establecido residencias artísticas durante varias temporadas en Wigmore Hall, Aldeburgh Festival, Utrecht Early Music Festival y Concertgebouw de Brujas. Junto a Vox Luminis, ha grabado más de una docena de álbumes aclamados por la crítica. Su reciente grabación de Buxtehude ha sido premiada con su segundo premio Gramophone, en esta ocasión, como grabación coral del año 2019. Nacido en Francia, Lionel se formó como cantante y flautista y comenzó su carrera como bajo en conjuntos de renombre como Collegium Vocale Ghent, Amsterdam Baroque Choir y Capella Pratensis.